


Euskal AEko BPGk % 3,9 egin du aurrera 2021eko hirugarren hiruhilekoan, eta enpleguak, % 3,5, urte arteko terminoetan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, BPGren hazkuntza % 1,0ekoa izan da eta enpleguarena, % 0,9koa

Euskal AEko barne-produktu gordina (BPG) % 3,9 hazi da 2021eko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 1,0ekoa izan da. Euskal AEko ekonomiak, BPGren bost hiruhilekoz jarraian hiruhilekoen arteko aurrerapena izaten egon ondoren, suspertzeko bidean jarraitzen du, 2020ko bigarren hiruhilekoan jasandako eta aurretik sekula ezagutu gabeko atzerakadaren ondoren.

Enpleguak, dedikazio osoen baliokide diren lanpostuen terminoetan neurtuta, etengabe suspertzen doala erakusten du. 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, % 3,5eko aurrerapena izan du. Aurreko hiruhilekoaren aldean, lanpostu kopuruaren igoera % 0,9koa izan da.



Euskal AEn BPGren urte arteko hazkuntza zenbatetsia, Europar Batasunak oro har izan duenaren antzekoa, Espainiako ekonomian zenbatetsitakoa baino handiagoa da (% 2,7) eta Eurogunean

zenbatetsitakoa baino handiagoa (% 3,7), baina Ameriketako Estatu Batuetako ekonomian zenbatetsitakoa (% 4,9) baino puntu bat baxuagoa.

Eskaintzaren ikuspuntutik, balio erantsiaren suspertzea esanguratsua izan da urte arteko terminoetan sektore guztietan, 2021eko hirugarren hiruhilekoan.

Lehen mailako sektoreak termino errealetan izan duen balio erantsiaren gorakada % 4,6koa izan da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; alegia, hiruhilekoen arteko jaitsiera % 7,2koa izan da.

Industriaren sektoreko balio erantsiak % 5,5 egin du gora, nahiz eta % 0,2ko atzerakada egon den aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Manufaktura-industriak % 5,9 egin du aurrera urte arteko terminoetan, eta % 0,3 atzera, urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak (%).
Euskal AE

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	5,9	-15,0	-13,0	-28,1	-7,1	7,8	4,6
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,4	-11,2	-8,9	-6,8	-1,1	30,2	5,5
Manufaktura-industria	1,1	-11,6	-8,8	-6,6	-0,7	33,1	5,9
ERAIKUNTZA	2,4	-8,2	-7,7	-6,5	-2,4	11,5	1,3
ZERBITZUAK	2,5	-9,0	-7,2	-7,7	-3,5	15,5	4,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,2	-18,1	-16,0	-18,5	-5,5	26,1	6,1
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	3,2	1,6	1,6	1,3	1,6	3,1	2,6
Gainerako zerbitzuak	2,4	-8,6	-6,1	-5,2	-5,0	17,3	3,5
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	2,3	-9,5	-7,7	-7,6	-2,9	18,4	4,2
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	2,0	-13,6	-11,8	-12,8	-3,0	20,4	1,9
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,2	-9,9	-8,1	-8,1	-2,9	18,6	3,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak
Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzaren sektoreak ere balio erantsiaren urte arteko aurrerapena izan du; 2021eko hirugarren hiruhilekoan % 1,3ko hazkuntza izan du. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balio erantsian % 1,5eko hazkuntza kalkulatu da.

Zerbitzuen sektorearen jarduera globala, urteko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berean izandakoa baino % 4,0 handiagoa izan da; % 2,3 suspertu da, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuen sektorean jardueraren suspertzeak zenbait intentsitate eta portaera izan ditu. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren** adarrak balio erantsiaren % 6,1eko igoera izan du aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean; aurreko hiruhilekoaren aldean, % 2,7 egin du behera.

Gainerako zerbitzuen adarrak –higiezinen eta profesionalen jarduerak, zientifikoak eta teknikoak, finantzarioak eta aseguru-entitateak–, berriz, suspertze moderatuagoa izan du, % 3,5ekoa, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean suspertzean izandako % 6,8ko igoera gorabehera.

Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrean, bestalde, gora egin du balio erantsiak, bai urte arteko terminoetan (% 2,6), bai hiruhilekoen arteko terminoetan (% 0,6).

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak (%). Euskal AE

	2020		2021		
	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	-4,4	-15,3	20,1	10,8	-7,2
INDUSTRIA ETA ENERGIA	23,2	3,2	1,4	0,9	-0,2
Manufaktura-industria	25,4	2,9	1,3	1,9	-0,3
ERAIKUNTZA	11,8	1,7	1,0	-2,9	1,5
ZERBITZUAK	13,6	0,0	-0,5	2,1	2,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	15,7	-2,5	2,2	9,3	-2,7
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,1	0,0	0,5	1,5	0,6
Gainerako zerbitzuak	21,1	1,5	-2,7	-1,9	6,8
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	15,5	0,7	0,2	1,6	1,6
PRODUKTUEN GAINENKO ZERGA GARBIAK	12,7	-1,1	-0,2	8,1	-4,6
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	15,2	0,6	0,2	2,2	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Sektoreko agregatu guztien urte arteko portaera positiboaren ondorioz, Euskal AEko **Balio erantsiak** % 4,2 egin du aurrera, urte arteko terminoetan, eta % 1,6, hiruhilekoen arteko terminoetan.

Eskariaren aldetik, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean izan den suspertzea ere orokortua izan da makromagnitude guztietan, baina atzerakada zenbatetsi da haietako askotan urteko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Etxeetako eta EZIAGEtako (**kontsumo pribatua**) amaierako kontsumoaren gastuak urte arteko % 2,1eko hazkuntza izan du; aurreko hiruhilekoaren aldean % 3,9 egin du behera.

Administrazio publikoen amaierako kontsumoaren gastuak (**kontsumo publikoa**) ere portaera positiboa izan du, urte arteko terminoetan, % 3,5ekoa. Hiruhilekoen arteko jaitsiera, kasu honetan, ez da hain esanguratsua izan, % 0,9koa.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak (%) Euskal AE

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	2,0	-8,9	-7,6	-7,0	-2,5	18,1	2,4
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	1,7	-12,4	-10,3	-10,6	-3,7	22,6	2,1
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	3,1	3,8	2,8	6,5	1,6	5,2	3,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	3,3	-11,7	-11,5	-8,5	-1,3	21,4	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,0	-12,9	-11,9	-5,6	1,9	41,3	7,6
Gainerako kapital-eraketa gordina	3,4	-11,0	-11,3	-10,2	-3,2	11,2	1,5
BARNE-ESKARIA	2,3	-9,6	-8,5	-7,4	-2,2	18,9	2,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	-0,2	-16,1	-14,3	-13,8	-2,4	30,1	12,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,0	-15,4	-14,7	-12,5	-1,4	29,8	10,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,2	-9,9	-8,1	-8,1	-2,9	18,6	3,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren baterako bilakaerak **Amaierako kontsumoaren gastuaren** % 2,4ko urte arteko hazkuntza zehazten du, zeinak, urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 3,2ko jaitsiera baitakar.

Kapital-eraketa gordinean (Inbertsioa), urte arteko suspertzea % 3,7koa izan da, 2021. urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta % 1,27ko atzerakadaren ondoren.

Ekipo-ondasunen inbertsioak % 7,6ko gorakada izan du, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; alegia, hiruhilekoen artean % 5,8ko atzerapena egon da. **Gainerako kapital-eraketa gordinean**, zeina eraikuntzaren bilakaerari lotuago baitago, hazkuntza moderatua izan da, bai aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (% 1,5 handiagoa), bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 1,8 handiagoa).

Barne-eskaria Amaierako kontsumoaren gastuak eta Kapital-eraketa gordinak osatzen dute, eta urte artean % 2,7ko aurrerapena izan dute. Hazkuntza hori BPG-ko zenbatetsitakoaren azpitik dago (% 3,9); beraz, **Kanpo-sektorearen** ekarpena positiboa izan da urteko hirugarren hiruhileko honetan Euskal AEko ekonomian. Urte arteko terminoetan, gehiago hazi dira ondasun eta zerbitzuen **Esportazioak Inportazioak** baino (% 12,5 lehenak eta % 10,2 bigarrenak).

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak (%). Euskal AE

	2020		2021		
	III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	11,6	0,6	-0,8	6,1	-3,2
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	15,4	-0,4	-0,3	7,1	-3,9
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	0,7	3,9	-2,4	3,0	-0,9
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	15,7	4,8	1,8	-1,7	-1,2
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	23,7	10,2	2,1	1,6	-5,8
Gainerako kapital-eraketa gordina	11,6	1,8	1,7	-3,7	1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	17,4	3,3	4,0	3,2	1,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	12,6	4,9	3,3	6,4	-4,4
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	15,2	0,6	0,2	2,2	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua, **Dedikazio osoaren baliokide diren lanpostuetan** neurtuta, % 3,5 suspertu da 2021eko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, enpleguko aurrerapena % 0,9koa izan da (dedikazio osoarekin baliokideak diren 8.000 lanpostu baino gehiago sortu ondoren).

Hori horrela, gogorarazi behar da lanpostuaren definizioak, Kontuen Sistema Europarraren (KSE) arabera, bere zenbaketan aldi baterako lan egiten ez duten baina beren lanpostuarekin –bermearekin edo berriro lanean hasteko datari buruzko akordioarekin, esaterako ABEEEn kasuak– lotura formala duten pertsonak uzten dituela kanpoan.

Lehen sektoreak enpleguaren bilakaera positiboa izan du, zeinak % 0,2 egin baitu gora, 2020ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, kontuan hartuta hiruhilekoen arteko terminoetan % 1,6ko jaitsiera izan duela. Industrian, lanpostuen urte arteko hazkuntza % 2,5ekoa izan da, bigarren hiruhilekoan baino dedikazio osoaren baliokide diren 2.000 lanpostu berri gehiago kontabilizatu ondoren. Eraikuntzan ere enpleguaren bilakaera positiboa izan da urte arteko terminoetan (% 2,6ko igoera), baina aurreko hiruhilekoaren aldean jaitsi egin da (% 0,8ko jaitsiera). Azkenik, Zerbitzuen sektorean, dedikazio osoarekin baliokideak diren lanpostuen kopuruak gora egin du, bai urte arteko terminoetan (% 3,9), bai hiruhilekoen arteko terminoetan (ia aurreko hiruhilekoan baino dedikazio osoaren baliokide diren 7.000 lanpostu gehiago hiruhileko honetan).

Lurralde historikoen arabera BPGri dagokionez, 2021eko hirugarren hiruhileko honetako bilakaera homogeneoa izan da urte arteko terminoetan: % 3,9ko hazkuntza Araban eta Gipuzkoan, eta % 4,0koa Bizkaian. Hiruhilekoen arteko bilakaera desberdinagoa izango da, baina positiboa hiru lurraldeetan. Bizkaian, % 1,4ko hazkuntza zenbatesten da urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta, Gipuzkoan eta Araban, igoera % 0,6koa eta % 0,3koa izan da, hurrenez hurren.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf.: 945 01 75 62